

Saratxoko obraren azken ekintzek are gehiago okertzen dute "Saratxoko saihesbidea" eraikitzeko proiektua, Saratxo Bizirik eta Saratxoko Administrazio Batzordeko kideekin batera egiaztatu dugunez.

Aurretik salatutako arazoei beste arazo batzuk gehitu eta sakondu zaizkie, hala nola desjabetutako azalera handitzea; izan ere, eremu batzuetan "ez zitzaien sartzen proiektatuta zuten errepidea".

Dani Berria jatetxeko aparkalekuaren zati bat bertan behera utzi dute, eta jabeak egoera honengatik frustrazioa adierazi du: "Egin dutenak ez du zentzurik, aparkalekua eta errepidea bateragarriak izateko nahikoa lur dagoelako. Nire buruari galdetzen diot ea zertarako balio duen Amurrioko Udalak 2015ean emandako emakume ekintzailearen sariak, gero negozioaren bideragarritasunari kalte nabarmena egiten dioten erabakien aurka neurririk hartzen ez direnean. Instituzioek Aiaraldearen alde egiten dituzten adierazpenek zertarako balio dute, gero ez bazaigu kontuan hartzen?".

Ezinegonaren eta salaketaren beste foku garrantzitsu bat "Los Mesones" eragiten dion obra da. Ezin ahaz dezakegu baserri hau Udalerriaren ondare izendatua dela eta bere osotasuna errespetatzearen ardura Udalarri dagokiola, Arabako Ondare Historiko eta Arkitektonikoko zerbitzuak argitu bezala. Errepidearekin muga egiten duen horma bota eta bazterbidea ia sukalderaino sartu nahi dute, azken honi 1,8 m inguruko zabalera neurrigabea emanez, gero zubiaren inbutura iristeko. Horrek esan nahi du duela 60 urte landatutako intxaurrondoak ere bota behar direla. Era berean, errepidearen altuera handitu egiten da, eta, ondorioz, aurrez aurre dagoen "Los Mesones" baserria, Ibarrolakoari gertatuko den bezala, errepidearen zoruaren azpitik geratzen da.

Lurdes Cuadrak, Saratxoko Administrazio Batzarreko presidenteak, zera esan du: ez digute jaramon handirik edo bat ere ez egiten auzotarren, auzokoen edo Batzarraren esanei, guk ezagutzen baititugu hobekien lurraldea eta lurraldearekiko eraginak. Paperean basatia zen, baina eraikuntzaren errealitateak hasierako planoak gainditzen ditu. Badirudi gurekiko batzarrak protokolarioak baino ez direla eta eskakizunei ezentzuna egiten zaie behin eta berriro.

EAJ/PNVko Gobernu Taldeari ekimen bat aurkeztu diogu. Bertan, Arabako Foru Aldundiko Errepide Sailari eska diezaion kontuan har ditzala Saratxoko Administrazio Batzordea eta Saratxoko bizilagunak, alternatibak bilatu eta eraginak minimizatzeke. Erakundeek ingurumen-jasangarritasunari, trantsizio energetikoari eta inor atzean ez uzteari buruzko mezuak bidaltzen dituztenean, errealitatearekin bat ez datozen adierazpenak direla erakusten ari dira.

ORAIN AMURRIOk beti kritikatu izan du saihesbidea Saratxotik igarotzean egiteko Arabako Foru Aldundiak egindako diseinua. Bide-segurtasunaren ikuspegitik aldaketa bat behar zela uste badu ere, obra hau neurrigabekoa da, dela lurzoruaren

okupazioaren inpaktua, dela arabarroi suposatzen digun kostu ekonomiko handia. Hotaz gain, Saratxon krisi sozial handia eragin du.

Udlean zenbait mozio aurkeztu genituen, Arabako Foru Aldundiari A-625 errepidearen trazadura hobetzeko eskatuz, izan ere errepide horretan ezbehar-kopuru handia gertatu ondoren, bide-segurtasunaren eskaera historikoa da. Hala ere, lurzoruaren okupazioaren inpaktua minimizatuko zuten irizpideak betetzeko eskatu genion, ingurumenaren iraunkortasuna babestuz eta inbertsio ekonomiko txikiagoa ahalbidetuz. Horretarako, bide-segurtasuna hobetzeko eskatu genuen, ekonomian, ingurumenean eta gizartean eragin txikiagoa izan dezan, ISVIAL enpresak orduko Arabako Orain Batzarkide Taldeak eskatuta egindako proiektuak proposatzen zuen bezala; izan ere, sortu zenetik parte hartu genuen.

Gutziz bat gatoz zuen kritikarekin eta frustrazio-sentimenduarekin, batez ere alternatiba iraunkorrago bat zegoelako (proiektatutako 78.651 m<sup>2</sup>-etatik, proiektu alternatiboaren 26.951 m<sup>2</sup>-etara igarotzea proposatzen zuenak) eta, beraz, ekonomian, gizartean eta ingurumenean eragin askoz txikiagoa zuelako. Baliabide gutxiago xahutuz, premietara bideratu ahal izateko, adibidez, osasun-, gizarte- eta ekonomia-premietara, beti izaten baitira hain beharrezkoak.

Amurrion, 2021eko abuztuaren 27an